



**EKINTZA  
KOMUNITARIOA  
ELKARREKIN  
ERAIKITZEN**

*Donostia*

# EKINTZA KOMUNITARIOA ELKARREKIN ERAIKITZEN

*Donostia*



**Autoretza eta diseinua** : Sorginlore Gizarte Elkartea

**Ekimena**: Donostiako Udala. Herritarren Partaidetza

2023ko ekaina, Donostia.

# AURKIBIDEA

01

HERRI EKIMEN EDO ENTITATEEI  
EKINTZA KOMUNITARIOAN  
BIDELAGUNTZA PROZESUA

02

ESPERIENTZIEN IKASKUNTZAK



ERLAUNTZA



AUZO | CO HERRERA



ULIAKO LORE BARATZA



ESKOLA BIDEA

03

ONDORIOAK

# HERRI EKIMEN EDO ENTITATEEI EKINTZA KOMUNITARIOAN BIDELAGUNTZA PROZESUA

Ekintza komunitarioak badu ibilbide bat gure lurraldean, baina, zalantzarik gabe, gaur egun Donostiako herri mugimendu eta ekimenetan presente dagoen gaia da, eta administrazio publikoaren agendan dago.

Berriki bizi izan dugun osasun-krisian sortu ziren ustekabeko egoerei erantzun kolektiboak emateko ekimenak bultzatu ziren. Ekimen horiek gure ingurunearekin harremantzeko eta inguratzen gaituen errealitatea ulertzeko moduan eragina izan dute. Inork ez dugu galdu nahi sortutako indarra, eta birkokatze eskatzen ari zaigu.

Testuinguru horretan, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak laguntza eskaini zien beren ikuspegi komunitarioa landu nahi zuten ekimen edo entitateei. Horrela, interesa erakutsi zuten ekimenekin prozesu bat hasi genuen, ekintza komunitarioaren inguruan hausnarketa bateratua egiteko eta ikuspegi hori landu nahi dituzten ekimenak praktikan txertatzeko funtsezkoak izan daitezkeen alderdiak identifikatzeko.

Lehen topaketetan ikuspegi komunitarioarekin bultzatutako ekimenen ezaugarri nagusiei buruz hitz egin ondoren, Donostian ibilbideren bat zuten identifikatu ziren ekimenetako batzuetara hurbiltzea erabaki genuen. Haien esperientzia gertutik ezagutu eta ikuspegi komunitarioa duten proiektuak bultzatzeko baliagarriak diren ikaskuntzak ateratzen saiatzea izan da helburua.

4 elkarrizketa egin dira, eta dokumentu batean gako nagusiak jaso dira. Elkarrizketatutako ekimenak honako hauek izan dira:

- [Erlauntza](#)
- [Auzo|co Herrera](#)
- [Uliako Lore Baratza](#)
- [Eskola Bidea](#)

Dokumentuak, abiarazitako prozesuaren testuinguruaren baitan gako nagusitzat jo direnak jaso nahi ditu. Praktika ezberdinak inspiratu edo haietan aplikagarriak izan daitezkeen gakoak bilatu nahi izan dira. Beraz, ez dira egindako elkarrizketen hitzez hitzeko aktak. Ez du bilatzen ekintza komunitarioa zer den eta zer ez den proposatuko duen hausnarketa teorikorik. Ikuspegi komunitarioa garatu nahi duten ekimenentzat baliagarriak izan daitezkeen ikaskuntzak partekatzerara mugatzen da, ibilbide jakin bat duten 4 esperientzian oinarrituta.

Dokumentuak honakoa jasotzen du:

- Elkarrizketa guztien araberako ideia nagusiak
- Esperientzia bakoitzari buruz ateratako gako orokorrak.

**02**

**ESPERIENTZIE  
IKASKUNTZAK**

## 1. EKIMENAREN HELBURUA

Auzoan bizi diren pertsonen bizi-baldintzak hobetzea. Horretarako, profesionalen mahaiak osatzen dira, zerbitzuen arteko konfiantza-harremanak sustatzen dituztenak eta erantzun koordinatu eta/edo kolektiboak sortzeko bidea ematen dutenak; norberak bere funtzioei lotuta ekarpenak eginez.

Hasiera batean, helburua zen adineko pertsonen premiei erantzutea batez ere. Erlauntza, pixkanaka, auzo bakoitzaren eta bertako eragileen errealitatera egokitzen ari da, eta, aldi berean, Gazteria eta Partaidetza sailak ere barnean hartuz doa. Alde batetik, horrela, bizi-zikloa zabaltzen dute, eta, bestetik, auzoko beste ekimen eta prozesu aktibo batzuekin konektatzeko aukera ematen diete

## 3. BARNE-ANTOLAKETA

Bi pertsona dira proiektua koordinatzeko eta dinamizatzeko arduradunak.

Udalerriko 8 auzotan dute presentzia. Hauek falta dira: Aiete, Antigua, Añorga eta Igeldo. Auzo bakoitzean, Erlauntza mahai bat eratzen da auzo horretan dauden zerbitzu eta baliabideetako profesional batzuekin: gizarte-zerbitzuak, farmaziak, ikastetxeak, anbulatorioak, kiroldegia, erretiratuen etxea, partaidetza-saila, haurtxokoa eta gaztelekua...

Mahai bakoitzak 5 bilera egiten ditu urtean. Bilera horietan, fitxa bati jarraituz, parte-hartzaile bakoitzak egindakoa eta egiteko dagoena partekatzen ditu; zailtasunak edo hobetu beharrekoak ere identifikatzen dira, eta irtenbide kolektiboak bilatzen dira. Bileren artean, proposamen horietako bakoitzean inplikaturako eragileek zuzenean eta/edo koordinatzaileen laguntzarekin proposamena pentsatzeko, eraikitzeko eta elikatzeke elkarlanean dihardute. Koordinatzaileek gainerako mahaietan ikasitakoa ekartzen dute, eta badakite inplikaturako alderdien artean nork dakien/egiten duen zer.

## 2. EKINTZA KOMUNITARIOAREN ESPEZIFIKOTASUNA

Erabakiak hartzeko moduarekin zerikusia du, erabakiok nondik hartzen diren eta noren beharri erantzuten dioten.

- Errazteak ez dezala berezko helbururik izan, baizik eta premiak eta ekintzak sortzen diren esparru bat sortu dezala.
- Beharri erantzun kolektiboak ematea eta modu kolektiboan abian jartzea.
- Ekitatearen begirada txertatzea.
- 

Izaera performatiboa eta malgua du, eta forma hartuz doa eskatzen, erabakitzen eta egiten denaren arabera.

- Pixkanaka aurrera doan bide gisa ulertzea, poliki-poliki eginez, ekintzekin eta bidean hausnartzeko esparruekin.
- Adi egon beti, hurrengo bueltan pentsatu beti.
- Testuingurura egokitzeko gaitasuna.
- Eginkizun hori auzoan kokatzen da, baina beste plano batzuk ere har daitezke «komunitatetzat».

## 4. HARREMANAK

Mahai bakoitzean, taldean nor gehiago sar daitekeen, zertara ireki... proposatzen da, eta han erabakitzen da. Profesionalak izan behar dute beti. Inklusioa aldi baterakoa izan daiteke, baldin eta abian dagoen ekintza edo prozesu jakin baten ondorio bada. Eztabaida irekia dago gai honen mugei buruz: Edozein eskaerak balio al du? Beharrezkoa al da auzoan presentzia izatea edo ekintza ere izan behar du auzoan? Zein izango litzateke helburua eta partaidetza antolatzeke modua? Bestalde, auzoan dauden ekimen asko, Erlauntzan parte hartu beharrik gabe, osagarriak izan daitezke eta helburu bera lortzen lagun dezakete.

Auzotik kanpoko harremanei dagokienez, dibulgazio-lan handia egin dute Unibertsitatean, hainbat kongresutan edota Eusko Jaurlaritzan mailan.

## 5. ZAILTASUNAK

- Hasierako zailtasuna: proposamenarekiko errezeloak eta profesionalak konbentzitzeko dedikazio handia.
- Lan-karga:
  - Jendeak lan asko badu, Erlauntza da uzten duen lehenengo gauza.
  - Batzuetan, pertsona berak bere zerbitzua ordezkatzeko du hainbat auzotako mahaietan.
  - Oreka lortzea pertsona/erakunde parte-hartzaileen kopuruaren eta egitura eta funtzionamendu bizkorren artean, non parte hartzen dutenek partekatu eta entzun dezaketela sentitzen duten.
- Informazioa transmititzea:
  - Batzuetan, mahaietan daudenak ez dira gairen bat erabaki edo konpondu dezaketenak; informazioak gorantz eta beherantz joan behar du.
  - Transmisioa, bai eta mahaien artekoa ere.
  - Sailak eta/edo zerbitzuak informazio-fluxu desberdinak dituzte teknikarien, landa-lana egiten duten langileen eta arduradunen artean.
- Udalek beren zerbitzuak auzoetan hedatzeko duten moduak (lizitazio bidez) langileen inplikazioa baldintzatzen du.
- Entzute aktiboa: alderdi parte-hartzaile guztiek funtzionamendu-dinamika hori bere egin dezaten lortzea.

## 6. ONURAK

### MAHAIETAKO PARTE-HARTZAILEENGAN:

- Bilera bakoitzetik honakoekin ateratzea:
  - Zure lanerako zerbait praktikoa: kontaktu bat lortzea, mekanismo zehatz bat ezartzea, etab.
  - Ongizate emozionala: ideia ero bat partekatzea eta esparru libre batean entzuten dizutela sentitzea.
- Harreman berriak ezartzea edo lehendik zenituenak indartzea.
- Protagonismoa eta lan teknikoaren aitortza.

### AUZOAN:

- Bizitza hobetzen eta errazten duten jarduera-mota batzuk normalizatzea: +55 ibilaldiak, preskripzio soziala, farmaziaren eta anbulatorioaren arteko koordinazioa...
- Zenbait profesionalak lan egiteko duten moduetan eragina, ikuspegi komunitario, kolaboratibo eta pertsonei lagun egiteko batetik.

### ERAKUNDEEN ARLOAN:

- Tankera honetako proposamen eta ikuspegiei erakundeen babesa handitzea. Horrek, nolabait, bere iraunkortasuna bermatzen du.
- Teknikariak kontuan hartzea erabaki estrategikoetan.

## 7. ERRONKAK

- Errazteko eta ehuntzeko lana ikusaraztea eta balioestea, baita lorpen «txikiei» eta akonpainamenduari buruz ere.
- Lidergo partekatua indartzea: mahai bakoitzeko eragileen autonomia indartzea beren artean harremanak izateko, Erlauntzako teknikarien bitartekaritzarik gabe.
- Mahaietan dauden eragileen artean begirada komunitarioa indartzea, baita sail ezberdinen artean.



## 1. EKIMENAREN HELBURUA

Bizitzarako eta auzorako funtsezkoak diren gai sozioekonomikoei modu kolektiboan eta lankidetzan heltzea, eta, aldi berean, euskara, harremanak eta auzo-sentimendua zeharka indartuz.

Ekimen honek, hasiera-hasieratik, ikuspegi komunitarioa izan du: ugalketa-ekonomiari (elikadura) lotutako jarduera kolektiboak egikaritzuz jendea liberatzea auzotik tira ahal izateko, bai beste gizarte-proposamen batzuk sortzeko edo sustatzeko, bai ekintza komunitarioak eskatzen duen egiturazko alderdiaz, hau da, koordinazioaz (harremanak, komunikazioa, topaketak...) arduratzeko.

## 3. BARNE-ANTOLAKETA

Asmoa da egitura administratibo-kontable-juridiko bat osatzea, sortuz joaten diren proiektu autonomoen babesgarri izan dadin. Pixkanaka hastea, gero ekimenen arteko interakzioa ezartzea eta integraltasunerantz joatea. Oraingoan, egitura zehaztugabea eta hasiberria da.

Gaur egun, babesgarri horren barruan, Sukalde proiektua gauzatzen ari da. Sukaldaritza komunitarioko proiektu bat da, etxeetara janari ona, osasungarria eta merkea eramateko ahaleginak, denborak eta dirua errentagarri bilakatzea bilatzen duena, auzoko lehen sektorea eta merkataritza indartuz.

Hauek dira partaidetza-planoak: talde eragilea, bazkideak, auzoa.

- Talde eragilea: 3 pertsona: Elkartu, kontsultatu eta erabaki egiten dute. Ez dago deliberazio-gune handiagorik, ez dira ailegatzen

## 2. EKINTZA KOMUNITARIOAREN ESPEZIFIKOTASUNA

Bizitzarako behar dugun energia ematen duten giza praktika guztiak dira ekintza komunitarioa.

Geografikoki, bizitza erdigunean jartzea da, zure bizitza eta, beraz, zure ingurunearena (kale bat, denda bat, baratze bat, ikastetxe bat, gizarte-ehuna...); auzo bizia lortzea, kultura-ekintzak soilik egiteaz eta mapa bat izateaz harago.

Jendearengana iristea, jende guztiak parte hartzen duela sentitzea, jakitun izanik lana eta proposamenak batzuetan pertsona batzuei interesatzen zaizkiela eta beste batzuetan, berriz, beste batzuei, baina guztiei ekartzen dietela onura; ilusioz eta gogoz, bakoitzak bere proiektua abian jar dezan eta komunitateari ekarpena egin diezaion.

- Bazkideak: 222 pertsona.
  - Hasiera batean, sukaldearen proiektuari lotzen zaizkio. Gaur egun, horietako askok ez dute aktiboki parte hartzen. Gutxi gorabehera, 50ek sukaldean parte hartzen jarraitzen dute, astero.
  - Hasieran izan ezik, bazkide egiten diren pertsonak auzokide berriak izan ohi dira.
  - Helburua: indarra hartzea eta batzarrak egitea.
  - Telegram taldea dute, sukaldeko berrikuntzei eta auzoarentzat interesgarriak diren beste gai batzuei buruzko informazioa emateko.
- Sukalde komunitarioaren funtzionamendua:
  - Lana kolektibizatzea eta lokalizatzea. 4 pertsona daude lanean: 3 sukaldean eta 1 banaketan; lanaldiak partzialak dira. Beste bat bolondres koordinazioan eta hedapenean.
  - Tokiko ekoizleekin harremanetan jartzen dira elikagaiak erosteko, eta auzoarekin ere jartzen dira harremanetan, proposamena azaldu eta bazkide egiteko gonbita egite aldera.
  - Astero menu bat egiten da sasoiko produktuekin, eta bazkideek astelehenero egiten dute hurrengo asterako eskaria. Horri esker, sukaldekoek dakite zer erosi eta prestatu behar duten. Bilketa astean bitan egiten da. Horrela, ez da elikagairik botatzen; kantitate handiak erosten direnez, produktu garestiak erosi daitezke, eta parte-hartzaileek sasoikoa zer den ikasten dute.
  - Gaur egun, banaketa Herreran eta Grosen egiten da.
  - Hau ez da jantoki sozial bat.

## 4. HARREMANAK

Lehen komunikazio-kanpainan, hiru belaunalditako pertsonak elkartzea lortu zuten (bakoitza heren bateraino). Gaur egun, batez ere gazteak, erretiratuak eta elkarte-mugimendua lotuta daude Auzoko elkartearekin. Oso interesgarria da, komunitate-mota desberdinak direlako, eta horrek kode eta modu desberdinekin lan egitea eskatzen duelako.

Hainbat kolektibok eta erakundek uste dute ekimenak eragina duela beste elkarte-ingurune batzuetan ere.

## 5. ZAILTASUNAK

- Egoera sozioekonomikoa dela-eta, gizartea oso zentratuta dago norbanakoarengan eta oinarrizkoa eta eroso den horretan. Zaila da ulertaraztea gauzak kolektiboki eginez gero dena hobeia izan daitekeela; besteekin bat egiteko ilusioa falta da. Zaila da tokiko nortasun kolektiboa finkatzea.
- Tira egitea nekoso da. Ez dago gutxieneko erosotasun, konplizitate eta segurtasunik talde bultzatzailekoa izateko.
- Zaila da proiektu berriak sortzea. Dela talde eragilearen zaintza-mugengatik, dela bazkideen autonomia-faltagatik.

## 6. ONURAK

### ARLO PERTSONALEAN:

- Bizi-baldintzak hobetzea (otordu osasuntsuak prezio onean eta eroso jateko aukera).
- Ekonomiari dagokionez, sukaldaritza komunitarioa onuragarria da langileentzat, hornitzaileentzat eta kontsumitzaileentzat.
- Ekimenak parte hartzeko eta harremanak izateko behar emozionala betetzen du.
- Ikaskuntzak.

### AUZOAN:

- Identitatea sortzen du. Ezezagunak hurbildu dituzten dinamikak sortu dira.
- Konplizitatea, masa eta mugimendua daudela ikusteak babesa eta segurtasun handiagoko testuingurua sortzen du.
- Aukera ematen du modu konkretuan parte hartzeko, ereduie buruzko kontakizun zentzudun eta ulergarri bati lotutako kontsumo-proiektu baten bidez.
- Erakutsi du posible dela kolektibotasunetik erantzutea, handik ekimen bat sortzea eta hari eustea; ilusioa sortzen du etorkizunean.

Zentzu zabalagoan, ekimenaren logika gizarteari ekarpen bat egitea da, eta, bestalde, erakunde publikoek, horrelako ekimenak diruz laguntzen dituztenean, dirua ondo gastatzen dutela erakusten dute.

## 7. ERRONKAK

- Auzoan denda bat sortzea: elikadurari buruzko ekimenen arteko lankidetzaren bidez; gizarteari erakustea egungo ereduak ez duela funtzionatzen.
- Talde eragilea indartzea, baldintza duinekin, horrelako proiektuak sustatzeko.
- Auzoan energia sortzea eta logika komunitarioa transmititzea. Mobilizatzaera bultzatzea eta bazkideak berraktibatzea:
  - Ekimen berriak proposatuz.
  - Proiektuak sortzeko edo gidatzeko eta administrazio publikoan eragina izateko duten autonomia indartuz.
  - Komunikazio-plan batekin.
  - Sukaldean parte-hartze handiagoa sortuz (inkestak).
  - Batzarrak antolatuz.

## 1. EKIMENAREN HELBURUA

Parkea, orain eta etorkizunean, esparru publiko eta ireki gisa bermatzea, herritarren kudeaketa arduratsu eta komunitario baten bidez.

Hasieratik argi dago komunitarioa parkea esparru ireki gisa ulertzeko moduan bertan dagoela, bai eta kudeatzeko moduan ere. Herritarrek, auzotarrek, erantzukizuna hartzen dute, eta espazioa egunerokotasunean bizirik eusteko abagunea hartzen dute, funtzionatzeko moduak probatuz.

## 3. BARNE-ANTOLAKETA

Ingurumen-elkartea.

Udalarekin harreman formalik gabe.

Pandemiarekin, jende asko joaten hasi zen, eta tentsioak, arrakalak eta gatazka txikiak sortu ziren. Konturatu ziren jada ez ziela balio funtzionamendu-ereduak, eta laguntza bilatzea erabaki zuten, zer diren eta nola funtzionatu nahi duten hobeto pentsatzeko. Gogoeta-prozesu hori egin berri dute.

Komunitateak – bazkideak, parte-hartzaileak eta erabiltzaileak – hainbat plano eta modutan parte hartzen du:

- Talde eragilea
- Batzordeak
- Baratzeko taldea
- Auzolana
- Jaietan eta beste ekintza batzuetan parte hartzea
- Parkea aisialdirako erabiltzea
- Instalazioak erabiltzea kanpoko jarduerak egiteko

## 2. EKINTZA KOMUNITARIOAREN ESPEZIFIKOTASUNA

- Ekintzari emandako garrantziaren eta harremani emandakoaren arteko oreka.
- Belaunaldien arteko harremana: jende guztiak erabil ditzakeen espazioak sortzea; han denek dute beren tokia, harrera ona egiten zaie eta babestuak izaten dira.
- Beste gizarte-mota baterako, harremanak sortzen dituen eraldaketa-prozesu gisa ulertzea, lehia eta indibidualismoa nagusi diren gizarte honetan:
  - guztion artean lankidetzan aritzeko helburua, bakoitzak daukanarekin, bere jakintzarekin, bere indarrarekin, puzzle baten antzera.
  - naturaren dinamika eredu gisa: zikloak eta prozesuak daude; landatu ez duzun zerbait biltzen duzu eta norbaitek zuk landutakoa jasoko du.

Talde eragilea:

- 7 lagun
- Gaiak eztabaidatu eta erabakiak hartzen ditu. Norbait bertan ez badago, bere erabakiak daudenen eskuetan uzten ditu eta konfiantza du haiengan.
- Maiz parte hartzen duten eta gehiago inplikatzeko aukera duten pertsonen talde horretan parte hartzerantz animatzen zaie.
- Dedikazioa honako hau izan ohi da: bilera formala edo informala astean behin, baratze-momentuan; hileko bilera lauhileko batez; wasapak irakurtzea; hausnarketa-prozesuan parte hartzea, eta bi hilean behin, auzolana. Eskatzen zaie nor bere mugak jartzea, bere erantzukizunen eta egoeraren arabera.

Batzordeak:

- Hibridoak dira: talde eragileko pertsonen eta talde horretatik kanpo daudenen parte hartzen dute
- Baratze eta lorategikoa, poztasunekoa, bizikidetzakoa eta partaidetzakoa...
- Nahiko egonkorak beren osasunaren

Baratzeko taldea:

- 20 lagun
- Asteko jarduera
- Baratzeari buruzko mintegiak egiten ari dira, talde horretako pertsonen autonomia sustatzeko.

Jarduera irekiak:

- Auzolan (bi hilean behin)
- Jaiak
- Bestelakoak
- 

Wasap-talde bat dute komunitateari jardueren berri emateko. Baratze-taldeko wasap-talde bat ere badute, astero izena emateko.

Parte-hartzea eraldaketa pertsonal bati lotuta egotea espero da, bakoitzaren egoera pertsonalak errespetatuz, pixkanaka inplikazio handiagoa ekarriko duena (batzordeetan parte hartzea, adibidez).

Parte-hartzaileen erdiak, gutxi gorabehera, parkearen inguru hurbilekoak dira.

## 4. HARREMANAK

Inflexio-momentu bat izan zen, beren jardueran kanporantz edo barrurantz zentratu izanari buruz. Orain, hausnarketa-prozesu bati ekin diote, proiektu irekia izaten eta gainerakoekin harremantzen nola jarraitu aztertzeko, beraien boluntariotzaren eta aktibismoaren zaintza eta estres ezaren mugak aldi berean errespetatuz.

Eztabaidatu beharreko gaiak:

- Espazioak erabiltzeko irizpideak eta arauak ezartzeko beharra identifikatu dute. Elkarreak, kudeatzailea den aldetik, horretarako aitortza duela agintzen dio bere buruari.
- Uliako Lore Baratza zerbitzutzat ez hartzea nahiko lukete, baizik eta jarduerak egiteko proposamenak onartzen badira, horiek ULBrekin koordinatuta kudeatzea, eta erakunde eskatzaileak erantzukizunez jokatzeari.
- Zer jarduera egin daitezke haurren eta gazteen parte-hartzea erakartzeko? Jarduera propioak proposatzea eta/edo hurbileko auzoetako gazte-taldeekin lankidetzan aritzea?
- Pribilegiarik gabeko egoeran dauden pertsonak (irregulartasun-egoerak dituzten migrazio-prozesuak, dibertsitate funtzionala...), haiekin lan egiten duten erakunde bidez parte hartzeaz gain, maila pertsonalean parte hartu dezakete?

## 5. ZAILTASUNAK

- Baratza bere jarduerarik egonkorrena, arrakastatsua eta erregularrena, baina baita gehien eskatzen duena ere. Neurri batean, beste jarduera mota bat sortzea eta/edo lantzea eragozten du (adibidez, lore-merkatua). Baratze-taldearen autonomia sustatzeak hori ahalbidetu dezake etorkizunean.
- Baratze-taldean parte hartzeko eskaera handia da eta, horregatik, kide-kopurua mugatu da, baratzearen dimentsioetarako egokia izateko eta antolamendua oso zaila izan ez dadin. Proposamenak kontrastatzea eta haiekin enpatia izatea bilatzen zuten batzarren ondoren hartu zen erabakia.
  - Taldearen egonkortasunak autonomia, kohesioa, identitatea eta pixkanakako inplikazioa sustatzen ditu, baina kanpoan uzten ditu parte hartu nahi luketen beste pertsona batzuk. Txandakatzea planteatu? Nola?
  - Egun bat gehiago sartzeak gehiegizko lana ekarriko lieke batzordeko kideei. Garrantzitsua da bereiztea zer lan beharko lirakeke ordaindutakoak.
  - Talde hori itxita egoteak, jende berria erakartzeko inbutu gisa funtzionatzen du.

Zaila da inplikaturako pertsonak motibatzea mintegietan parte har dezaten, gaiak honako hauek direnetan: partaidetza, talde-lana eta/edo gogora ekartzen dutenak nor diren, parkea zer den eta hor egoteak zer dakarren.

## 6. ONURAK

### PERTSONALEAN:

- terapeutikoa da esparru natural batean egotea, lurra ukitzea, zeuk landatutakoa jatea, haziak ateratzea; pozgarria da, betetzen duen zerbait.
- Atsegina da bertan egotea, harreman berriak sortzen dira.

### PARTE HARTZEN DUEN KOMUNITATEAN:

- Berdinen artean hitz egiteko, ikasteko eta elkarrekin egiteko espazio erakargarri bat izatea; kanpotik bazatoz sustraitzeko esparru bat, non normalean ikusten ez ditugun eta ikusi nahi ez ditugun pertsonak besteok egiten dugun gauza bera egiten duten.
- Modu alternatiboan funtzionatu daitekeela sinetsi ahal izateko, zure konpromiso-mailen arabera inplikatzeko, gizarte-eraldaketan eta lurraren zaintzan modu praktikoa eta zehatzean parte hartzeko, teoria, ideologia eta praktika uztartzuz.
- Etorkizunerako harreman-gakoetan hezteko eta esperimintatzeko esparru bat izatea.

### UDABERRIAN:

Ekimenaren adibide bat izatea, non herritarrak modu oso merke eta positiboan antolatu eta autokudeatu diren sustatzen den bizi-kalitate-motarako, eta, gainera, esparru publikoa zainduz.

### NATURAN:

biodibertsitate-esparru handia izatea (zuhaitz-masa, baratzeak, intsektuak...)

Lekua, harremanak eta eraldaketa lotzen dituen ikuspegi integralak ahalbidetzen ditu onura horiek. Parkea babesteak –jatorrizko helburua– bere izateko arrazoia du, parkeak berez eta hori kudeatzeko moduaren bidez, onura horiek esperimintatzea ahalbidetzen duen neurrian. Hazi bat bezalakoa da, beste leku batzuetan egin ahal izateko eredu bat, modu ezberdinean, baina oinarrizko osagaiak zein diren jakinda.

## 7. ERRONKAK

- Egiten dutena duintasunez eta lasaitasunez egiteko legitimitatea lortzea: gutxieneko baliabide batzuekin, segurtasunarekin espazioa ordezkatzeko orduan, arriskuan dagoela sentitu gabe.
- Bere egitura sendotzea eta bere jarduerak ondo egitea, bere eskala eta funtzionamendua hausnarketa kontzientearen arabera egokituz eta nortzuk diren eta zer nahi duten ahaztu gabe.

## 1. EKIMENAREN HELBURUA

Hurrek kaleaz gozatzeko duten eskubidean oinarrituta, proiektuak mugikortasun segurua garatu nahi du bizilekuen eta ikastetxeen arteko ibilbidean, autonomiari, erantzukizunari eta ikastetxeetan eta auzoan parte-hartzeari buruzko lan baten bidez.

Hasieratik argi dute ikuspegia izango dela mugikortasun-irtenbideak bilatu eta martxan jartzea, modu kolektiboan eta auzoko eragileekin lankidetzan. Alde horretatik, sailak proiektuari lagun egin nahi dio, mugikortasunetik harago.

## 3. BARNE-ANTOLAKETA

Proiektua abian jartzeko ekimena ikastetxe, komunitate edo Udaletik sor daiteke. Normalean, mugikortasunaren arloko larrialdi bati erantzuten dio (leku eta/edo segurtasun-arazoak, gertaera estresagarria edo traumatikoa).

Hortik aurrera, modu ko-gestionatuan gauzatzen da:

- Trakzio-taldea eratzea: hezkuntza-komunitateko kideak (inplikaturako ikastetxeetako zuzendaritza eta/edo irakasleak, gurasoak), Udaleko, elkarte-sareko eta, batzuetan, tokiko merkataritzako ordezkariekin batera.
- Behar gisa sentitzen dena mahaigaineratzen da, behar horri heltzeko proposamenak egiten dira eta inplikazio teknikoak eta mugak baloratzen dira.
- Modu partekatuan erabakitzen da, adostasunez.

Tokiko estrategiak eta askotariko jarduerak gauzatzen dira. Asmoa ez da zerbait puntuala egitea, baizik eta errutinak aldatzea mugikortasunari dagokionez, modu zabalean ulertuta eta generoa, adina eta abar kontuan hartuta. Horretarako, esperimendu egiten da: zer gertatzen da hirian beste leku batetik nahiz beste modu batean joaten saiatzen bagara, kalea gehiago izan dadin topagune bat...?

Batzuetan, Udaleko beste sail batzuekin koordinatuta jarduten da. Bereziki funtsezkoa da Partaidetza Sailaren presentzia.

Gizarte eta elkarte-sare aktiboa izateak ere ekimena ezartzea errazten du

## 2. EKINTZA KOMUNITARIOAREN ESPEZIFIKOTASUNA

Ekimena erakundeetatik sortzen bada, proiektua komunitatearen eskura jarri behar da, mugei eta baldintzei buruzko gardentasunez, baina, neurri batean, boterea entregatuz.

Definizio eta garapen progresiboak, komunitate bakoitzaren abiapuntuaren, motibazioaren eta erritmoaren arabera.



## 4. ZAILTASUNAK

- Gizarte-ereduak eta inplikaturako pertsonen balioek ez dute beti ahalbidetzen proiektuari esker izandako aldaketak eta praktikak finkatzea, ez eta portaerak aldatzea ere.
- Udalak ekintza komunitarioan duen rolari buruzko ikusmolde desberdinak: baliabideak eskuratzen dituen? Gauzak errazten dituen? Ko-gestioa?
- Proiektuaren iraunkortasuna lortzeko eskualdatzeak egitea, honako hauetatik harago:
  - Familia bultzatzaileen bizi-zikloa (beren hurrek haur eta lehen hezkuntza egiten duten bitartean).
  - Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen aldaketak.
  - Udalaren presentzia.
  - Pertsonen arteko gatazkak.
- Bitartekaritza egitea interes-gatazkak dituzten komunitate desberdinak bizi diren lekuetan.

## 5. ONURAK

### ATZEMANDAKO ONURA KOLEKTIBOAK

- Proiektutik harago mantentzen diren harremanak sortzea.
- Ilusioa pizten duen proiektu batean eta talde kohesionatu eta traktore batean parte hartzeko esperientzia izatea.
- Besteekin egiten ikastea. Erakunde-mailan, sail estankoetan ez funtzionatzen ikastea. Elkarreei dagokienez, mobilizazio-ibilbidea duten desberdinen artean egotea.
- Ikustea posible dela, interes desberdinetatik abiatuta ere (haurren segurtasuna, komuna denaren kudeaketa, etab.), helburu partekatuta batera eta elkarrekin jardutera iristea.

Normalean, prozesuek ilusioz betetako une bat izaten dute, eta une horretan gauza guztiek onuragarri dirudite. Gero, indarra galdu ohi dute, edo beste fase batean sartzen dira. Garrantzitsua izango litzateke zer plano eta zer mailatan eragiten duten zehazki neurtzeko moduak bilatzea, eta ikustea nola, atzera egiten dutela dirudien arren, pixkanaka aurrera egiten dute.

## 7. ERRONKAK

Gaur egungo erronka eskolen inguruan sortutako dinamika berreskuratzea da. Pandemiaren ondoren, ez da proiektu aktibo bat ere gelditu. Eskoletako eta auzoetako erreferentziazko pertsonetako harremana eten egin da, eta, kasu batzuetan, atzean dauden pertsonak aldatu egin dira (ikastetxeetako zuzendaritza-talde berriak, elkarrekin ordezkariek...). Indar handia galdu da, eta berriro berreskura daiteke, baina, horretarako, egungo testuingurura egokitutako lan bati ekin behar zaio.

Egindako elkarrizketetan jasotakoa eta talde-saioetan kolektiboki hausnartutakoa oinarri hartuta, ikuspegi komunitarioko proiektuak bultzatzeko gako batzuk proposatzen ditugu.

- Ez dago definizio bakar bat ezarrita. Batzuetan, baliteke ekimenak berak ez identifikatzea ekintza komunitario gisa, edo horri buruzko gogoeta kontzeptualik egin ez izana.
- Kasu askotan, ekintza komunitarioa geografikoki kokatuta dago. Ez da ezinbestekoa.
- Izaera performatiboa: ekintza komunitarioak bere forma hartzen du egitean, testuinguru bakoitzean egoera eta kolektiboki ezarritako lehentasunetara malgutasunez egokituz.
- Interes partekatuei erantzuten dieten eta premia eta/edo motibazio desberdinak lotzen dituzten ekimenak dira. Horregatik, jatorrian jorratzen den gai espezifikokoaren ikuspegi zabala behar da (ULB - lorategia eta baratzea, Auzoko Herrera - sukaldea, Eskola Bidea - mugikortasuna, Erlauntza - osasuna) eta hori gainditu. Ikuspegi komunitarioarekin lan egiteak, lan egiteko moduan jartzen den azpimarra. Landu nahi diren gaiak nola jorratzen diren. Jorratu beharreko gaia bezain garrantzitsua da nola egiten den, arreta jarriz eta proiektu partekatuak, gozatzeko modukoak eta harremanak sortzen dituztenak izan daitezen zainduz. Gizarte-kezkekin eta banakako beharrekin konektatzen dute.
- Ez dira zerbitzu bat eskaintzen duten proiektuak. Hainbat pertsona eta eragileren parte-hartzetik eraikitzen dira, hainbat inplikazio- eta autonomia-mailekin. Konstantzia eta presentzia behar dute. Horregatik, funtsezkoa da egiten denaren, helmugaren, klimaren eta funtzionamenduaren berrikuspen kolektiborako guneak/uneak izatea.
- Trakzionatzen duen talde eragile bat egon ohi da (koordinatu, komunikatu, ilusionatu, proiektatu... egiten du). Lan hori pertsona gutxiengain dagoenean, pertsona horiek gainezka egiteko arriskuak ekimenaren iraunkortasuna baldintzatzen du.
- Horregatik, garrantzitsua da ekimena osatzen duten pertsonen ongizateari arreta jartzea, baita ekimenaren garapena ahalbidetzen duen egiturari ere: zereginak eta protagonismoak banatzen dituen egitura izatea, lidergo aldakorrak erraztea eta inplikaturakoen autonomia sustatzea (erabakiak hartzeko, zenbait alderdi dinamizatzeko).
- Funtsezkoa da lortzen dena hitzez adieraztea, aitortzea eta ospatzea, baita prozesuan zehar gozatzea ere.

Ekintza komunitarioaren erronka nagusietako bat, indibidualismoa, kontsumismoa, berehalakotasuna eta estreseko testuingurua kontuan hartuta, ekintza abian jartzea eta jasangarria izatea da. Aldi berean, harreman, lankidetzeta eta ekintza kolektiboaren onurez ere gero eta kontzientzia handiagoa ikusten dugu. Ildo horretan, ekintza komunitarioko ekimenek etengabeko tentsioa mantentzen dute, zaintzaren, dimentsioaren eta inplikazioaren muga oreka dinamikoa eraikiz.

**INFORMAZIOA ESKURAGARRI**  
**[www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)**